

auzo z auzo • auzo z auzo • auzo z auzo

### gros-ulia

**Auzoko inauterietarako** bi oholza egongo dira: Txofren eta merkatuaren atzekaldean. Konpartsak irtengo dira ostiralean eta kaldereroak ikusteko aukera izango dugu berriro. Garai bateko donostiar inauterietako kantu zaharrak interpretatuko dituzte Txofreko oholzian. Dantzaldi bat ere izango da ostiral gauean.

**El Muro tabernan**, ostiral eta larumbatean. otsailaren 17 eta 18an. Lucho Herrero Costa Ricatik etorri berriak kontzertua eskainiko du.

**Catalina de Erauso Elkarteak** hilaren 26-ean Herriz Herri egitarauaren barruan Errioxako Ezkaraira antolatu du irteera. Ibilaldia Pilar Bea Mungiak gidatuko du. Joan nahi duzuenok lehen bailehen deitu elkartera.

# Mendiola: Sagardotegi-merenderoa



*izaten dugu lan gehiena, baina sagardoaren garaian afarien kopurua noski handitu egiten da* dio Antonio Galarragak.

### Mendiola izena

Mendiola izenaren jatorria baserriarena da, sagardotegia baino lehenagokoa baita. Negozioa gurasoek jarri zuten martxan, baina orain seme-alabek jarraitzen dute. Duela urte dextentz geroztik egiten dute sagardoa Mendiolan bertan.

Jateko orduan aukera ezin hobea dago eta nahi izan ezker aurretik eska daiteke nahi den menua. Antonio Galarragak 2.000 pezetarekin ondo eta gustora jan daitekeela esan digu.

Donostian zortzi sagardotegi ditugu guztira eta hauetakoa bat, zaharrenetakoa Ulian dugu. Mendiola sagardotegiak berrögei urte inguru ditu, eta sagardotegiaz gain merendero ere bada. Antonio Galarraga jabeak eguraldi ona egiten

duenean jende ugari hurbiltzen dela aitortu digu. Udaberri aldera nabaritzen hasten da jendea eguraldi ona denean Uli aldera paseatzera ateratzen dela eta gero gosaltzera edo merendatzera gerturatzen dira. *«Batez ere bazkariekin*

AITZIBER GURUTZEAGA (TFNOA.: 272884)  
ARGAZKIA: XIMON

## Maiko Sport

Segundo Izpizua, 20  
Tfnoak: 28 53 30 • 29 35 45.  
DONOSTIA



### San Carlos Borromeo


Kontsumo Kooperatiba

KONFEKZIOA - LENTZERIA - UMETXOAK  
Oartzun, 7 • Tfnoa.: 27 02 36  
.....  
JOSTAILUDENDA  
Errenderi, 10 • Tfnoa.: 27 61 54

## Aiaia Taberna

Gosariak • Meriendak • Pintxoak...

Euskal Herria plaza - ☎ 29 26 63 Gros



### DIVINO SABAT

*(Bazar Esoterikoa)*

Marino Tabuyo, 13 - Tfnoa.: 27 32 09